

## EUSKARA GEORGIAKO UNIBERTSITATEAN

76-V-25

*Xabier Kintana*

Duela urte pare bat, Jan Braun poloniar hizkuntzalaria Bilbora etorri zen, Euskal Akademiaren bulegora hain zuzen. Jaun hau euskara ikasteko bibliographia bila zetorren eta guk geuk ahal genuen neurrian geure laguntasuna eskaini genion.

Euskaraz gainera, irakasle honek georgiera ere ba zekien eta, neronek ere hizkuntza hori ikasten niharduela jakitean, Georgiako euskalari baten izen-bizilekuak eman zizkidan.

Harez gero Greta Txantladze andrearekin postazko harremanetan hasi nintzen. Andre gazte hau, kaukasiar hizkuntzetan espezializatua, euskara ikasten ari zen eta horretarako, jakina, zenbait liburu, grammatika, estudio eta hiztegiak behar zituen. Neronek ahal nuen guztia bidali ukan diot, eta berak, ordainez, antzeko materialeak igorri dizkit georgierari buruz.

Oraintsu jakin erazi didanez, Xota Dzidziguri akademikidearen eta Tabagua irakaslearen laguntzaz, Tbilisiko Unibertsitatean, Irailean hasita, euskara asignaturatzat ezarriko da ofizialki, Greta Txantladze irakaslea delarik.

Horrez gainera, Dzidziguri eta Tabagua jaunen ardura-pean, *Euskaltzaleen Elkarte* bat eratu berri da Georgian, beronen helburua Euskal Herriko hizkuntza, historia eta kultura ezaguteraztea izanki.

Ene ustez, Euskaltzaindiak, bai Tbilisiko Unibertsitateari eta bai Xota Dzidziguri akademikideari bere eskerrak adierazi beharko lizkieke gutun banaz, horrela gure herrien arteko kultur loturak sendoago egiteko nahia erakutsiz.

Bilbotik, 76-VI-1

Tbilisiko Unibertsitateko  
Errektore jaunari  
Georgiara (SESB)

Jauna:

Euskaltzaindiak, Xabier Kintana akademikideari Greta Txantladze euskalariak esandakoaren arauera, zera jakin du,

zure ardurapeko Unibertsitate horretan, datorren ikastaroan hasita, euskal estudioak emanen direla, horien karguan gorago aipaturiko andrea dagoelarik.

Biziki pozten gaitu, noski, gure hizkuntza eta kulturagatik duzuen interesak, eta, horregatik, gutun honen bidez, zuri, Unibertsitateari eta Greta Txantladze andreari geure agur eta eskerrak helerazi nahi genizkizueke. Bide batez, zuen zerbitzutan jartzen gara euskal hizkuntza eta literaturari dagokien guztirako.

Izan bitez René Lafon euskaltzainarekin hasi zirèn eta orain aurrera doazen pausook gure Herri bien arteko harremanak sendatzera eta haunditzera lagunduko dutenak.

*Bihotzez, Euskaltzainburua*

Bilbao, 1-VI-76

Monsieur le Recteur  
de l'Université de Tbilissi  
Georgie (URSS)

Monsieur le Recteur:

L'Académie de la Langue Basque a appris par l'intermédiaire d'une correspondance entre l'académicien Xabier Kintana et la bascologue Mme. Gréta Tchantladzé, que dans l'Université aux destinées de laquelle vous présidez un enseignement de la langue basque sera donné à partir de la prochaine année universitaire.

Nous sommes heureux de l'intérêt que vous portez à notre langue et notre culture et, par cette lettre, nous désirons adresser le témoignage de notre gratitude à l'Université ainsi qu'à Madame Gréta Tchantladzé. Nous nous mettons à votre disposition pour tous renseignements relatifs à la langue et à la littérature basques.

Dans l'espoir que ces liens tissés en premier pas par le regretté académicien René Lafon seront noués encore plus étroitement entre nos deux peuples, nous vous adressons nos très cordiales salutations.

*Président de l'Académie de la Langue Basque*

*Bilbotik, 76-VI-1*

*Xota Dzidziguri jaunari  
Georgiako Zientzi Akademia  
Tbilisira (SESB)*

*Jauna:*

*Euskaltzaindiak, Xabier Kintana akademikideari Greta Txantladze euskalariak esandakoaren arauera, zera jakin du, zerrorrek, Tabagua irakaslearekin eta gorago aipaturiko andrearekin batera, Euskaltzaleen Elkarte bat eratu berri duzula Georgian, hor gure Herriaren hizkuntza, historia eta kulturaren berri emateko.*

Gutun honen bidez, Euskaltzaindiak zuri, zure lagunei eta Georgiako Herri osoari bere eskerrak eman nahi dizkizue, gureganako erakutsi duzuen begikotasunagatik. Bide batez, jakizue zeuen zerbitzutan gaituzuela gure hizkuntza eta literaturari dagozkien gauza guztietarako.

Jadanik Réne Lafon euskaltzainarekin hasitako eta oraingo pauso berri hauen bitartez, gure Herrien arteko kultur harremanak gero eta sendoago egingen direlako esperantzan, bihotz bihotzez agurtzen zaitu

*Euskaltzainburua*

Bilbao, 1-VI-76

Mr. Chota Dzidzigouri  
Académie des Sciences de Georgie  
Tbilissi (URSS)

Cher monsieur:

L'Académie de la Langue Basque a appris par l'intermédiaire d'une correspondance entre M. Xabier Kintana et la bascologue Madame Gréta Tchantladzé que vous même, Mme. Tchantladzé et le professeur Ilia Tabagua avez fondé une association destinée à faire connaître dans votre pays, la langue, l'histoire et la littérature basques.

Par cette lettre nous desirons vous féliciter de cette initiative et apporter notre témoignage de gratitude à tout le peuple géorgien pour la sympathie qui nous est donnée. Nous nous

mettons à votre disposition pour vous aider dans la mesure de nos moyens pour tout ce qui concerne la langue et la littérature du Pays Basque.

En esperant que ces contacts déjà entrepris par le regretté académicien René Lafon seront plus nombreux dans l'avenir et qu'ils serviront à tisser des liens culturels entre nos deux peuples, nous vous adressons nos très cordiales salutations

*Président de l'Académie de la Langue Basque*

## UME EUSKALDUNEN ALFABETATZEA

*Donostia, 1976-X-29*

*Jose Antonio Retolaza*

### AGURRA

Agur, eta arratsalde on jaunak:

Euskaltzaindia, sortu zanetik, gure euskerea zaintzen eta bizkortzen alegendu da. Euskereaganako gaur errian dagoan zaletasuna ta jakingurea, zati on baten, berari zor jako.

Euskeraren alde aspalditik lanean diardudan onek orain arte egin dodanaren barri dakartsuet. Ez da teori-lan sakon bat, ez; nik orain arte egindakoen kontu-emote bat baiño.

Nire arazoaren alderdi onak guztiontzat lagungarri izan daitezela; eta oraindik egiteko diranetan, guztion eritxiak eta alegiñak mesedegarri izan daitezela.

### EUSKEREAK, GAURKO MUNDUAN IRAUTEKO, SENDOTU BEARRA DAU

Gaurko munduan, edozein izkuntzak bizi al izateko sendoa izan bear, edo sendotu egin bear.

Gure euskereak dakarren atzerapenagaitik, aldean daroan makaltasunagaitik, eta aurrean eta inguruan dituan arriskuakaitik, sendotu bearra dau.

#### a) *Dakarren atzerapenagaitik*

Orain arteko politika ta gizarte egoeraren erruz gure euskerea ez da, jakintza arloetan batez bere, bear dan beste lan-